

Gaurtxe

TXILLARDEGI



GEREZIAK Ekinean bildu behar dira. Berantago, beranduegi.

Kondairan ere gauza bera gertatzen da. Orain da abertzaletasuna bideratzeko unea. Hemendik urte pare batera, oreka nagusia aldatuta egon daiteke. Ekialdeko nazioen zuzerpuntza orain gertatu da. Hemendik hamar urtetara, «hamar urte lehenago gertatutako fenomeno» izango da.

Orain da mementua, hitz batez. Ez da sekula izan giro hobierik eskabide nazionalak bideratzeko. «Nuevo Orden Internacional» delako izurrite hori mamitu eta nagusitu orduko, agur! Beste 50 edo 100 urte «txar» izango ditugu.

Mementu honetan, beraz, **Autodeterminazioa** ez den **guztia, bigarren mailan** jarri behar da: «Bloke Demokratiko» delakoa, SIDA-ren kontrako burruka, Autobia, Estatutoa, Amjoragenduaren defentsa, lanaiey-en proiektuaren inguruko barne-dramak, den-dena, orain (nahiz ez betirako) **alde batera** utzi behar da.

Autodeterminazioaren **alde** gauden **guztiok** behar dugu elkarganatu eta elkar-hartu: eta Autodeterminazioaren **kontra** dauden **guztien** kontra borrokan hasi.

Eta, **honetaraz gero, ez zaie sigleki edo aitakieki** begiratu behar. Sekula santan egon den adiuntzari hobereña hau izanik, Autodeterminazioa **gaur** ere bultzatu nahi ez dutenak, espaniolista amorratuz hartu behar dira. Espagnolismoaren baradaratzat.

Sorpresa gutxi, dena dela. Zeren-eta ikurriña kolpeka kendu dutenek, herri abertzalean agintea espaniolen eskuetan jarri dutenek, Autodeterminazioaren aldeko «Agiria» pakto aitortzaren aspian ehortzi dutenek, «Egunkari» hau eta beste mila bultzada eskaltzale itozten saiatu direnek, eta, hitz batez, Arana-Goiri-ren izenean **ekintza abertzaleak** oro enterratu nahi dituzten neo-karkek, **Autodeterminazioaren kontra** ere jokatzea **normala** baita.

Karlistek berdin egiten zuten!

Autodeterminazioari **Bai** ala **Ez**. Hona hemen gaurko hautakizun nagusi **bakarra**.

Alegia

PIARRES XARRITTON



GURE euskal gobernuari erandi dela, erortzera doala —ja eroria dela nahia...— banindagion gogoeta, berriak hartzean, gure alderdien joko eta egocera nahiz ulertu.

Bagenituen lehen teologoen argibideak: «Jainkoaren nahia... eta...». Gero etorri ziren teologo berriak, soziologo deitzen zirenak: «Klase borroka gora eta klase borroka behera...». Baina hauek ere orai, batzuek bederen darduzatzen hasi zaizkigu, nahiz integristen kasta ez den sekular agortzen ez kristauek ez marxisten ez eta ere abertzaleen artean.

Dena den **gogoratu zai** bazirela ere **aspaldiko argibide** aproposak, Alegiak deitzen zirenak. «Amaliak izurriteaz erituaik» Martin Goyhetxe Urrunako apezak iragan mendeen bertsotan itzulikatu zue-na, har bagenezal, egin dit nereki. Nor litzeken gure artean historia horretako **lehoioa**, laster ikusia da. Nor **hartzera** ere bai, nik usete eta **notaceria**. Baina **astud?** **Astozera** guk egin beharko naski. Gu izamen gaitz **guziez** hobendun eta beraz, hartze dugun **gaitz**-duga guk ukanean. Goyhetxek zioen bezala ikusitoga dugu:

«...gaitzain handia Karrosan ibiltzen, ohorez gaimdia, Urkatzen aldiz tipia.»

Bainan kontuz, **lehoioa, hartz** eta **azteriek**, kasu egin bezate! Beste alegia bat ere badu Goyhetxek: **Lehoi-na zahartzen** eta eritzen baita azkenean, eta orduan azken ostikoa emaiten dio... beihalako **astoko**.

• DEIA

Subiranotasuna administratu

Egun hauetan, non Kanpo Arazoetarako ministroak ere autodeterminazio eskubidea burutzeko posibilitatea seriotasunez hartzen duen, horrek izango litzukeen ondorioekin mehatxatu/ohartzaritzen bait du, bat baino gehiago damu da Euskal Autonomi Elkarte den bezalakoa izateaz eta ez izan zitekeen bezalakoa. Nahiz eta abertzaleei egungo egoerari amore ematea zaila egin, gauza da, horien aurkakoei hasiak direla pentsatzen, Nafarroa komunitatean egonda zailagoa izan zitekeela euskal nazionalisten arrakasta hauteskuntetan. Eta, azkenik, beraiei berdin ardura zaie Euskadi, Nafarroa barne edo ez.

J.FELIX AZURMENDI / 1991-IX-13

• EL DIARIO VASCO

Azken ordagoa

EA, abileziak bere gobernuki-

deek aldarrikatzen duten autodeterminazio mozioetara gehitu daiteke, horrek atzera egite lotsagarriak suposatuta gabe. Izan ere, Oliveriren alderdiak baza bat badu ezkutupean, eta EAJrentzat, banaketa gertatzen bada, Gobernu berriro aldatzea ez da batera erraza izango. «Añuamendiren» jarrera tinkoa, hirukoitzat aldatzearen aurka, EA ez den beste alderdi batekin paktua egitea zaila izango da. EEko kritikoei badakite, Gobernu nazionalista apurtzen bada, beren hauteskuntetarako koalizio proposamena eta zentru-ekzerra nazionalista baten proiektu estrategikoa —non EAko sektoreak beharrezkoak diren— larri ukitua izan daitekeela.

ALBERTO SURIO / 1991-IX-13

• Diario 16

Egun gutxi barru erabakiko da

EAJk polemika antzutik kanpo geratu nahi du; polemika horrek,



LÓPEZ & PÉREZ / EGIN / 91-IX-13

bestalde, liskar grinak lurperatu nahi dituen gizartearen tentsioak areagotu baino ez ditu egiten. Sozialistek ezin hobeto datorrike nazionalistak berriro ere, gaizki deituriko bloke konstituzionalera erakartzea. Izan behar duena aurki izango da, EAJ eta EAren arteko harremanak jasanezinak bihurtu bait dira.

Orain, Gobernu hiru garren kidearekin, Euzkadiko Ezkerrarekin zer gertatu behar duen da EAJk planteatzen duen galdera; PSE kabinetean sartzeak, formazio politiko horretan ezinbestekoa den banaketa bizkortu egin dezake.

GONZALEZ FERRARI / 1991-IX-13

ZUZENDARIARI

Ba ote dakigu euskeraz?

Bai, orixe, bestela ezpakiñake idazki auxe irakurtzen izango. Baña, itxurazkua litzak moduan irakurtzeko eta idatzeko gauza ote gera? Ni ez beintzat. Aspalditikan nenbillen orrekien oartuta, baña ez det egundo nere euskera obetzeko alegiñikan egin. Ez det esango izketan ondo moldatzen ez anizenikan (ez situazio guztietan alare), baña idazterakun konturatzen naiz, bai, ez dedala egiten Euskaltzaindiak agitzen duen bezela.

Egunotan ikusi ditut AEKK ateratako kartelak nere auzoko (Antiguoko) kaletan itsatsita. «Euskeraz bizi Euskal Herria», edo orrelako zer bait diote jendia euskera ikastera edo obetzeran animatu nairik. Askotan pentsatu izandut det ez dagoela euskeraz egoki bizi-terik ezpada euskeraz eskribitzen den guztia ondo ententiduta. Ni gizon kultura naiz, baña kultura erderaz: ez naiz euskerazko nobela bat (esate baterako) letzeko gauza; gauz asko zailak egiten zaizkit betanetan, nekatu egiten naiz. Kartak auxe bera ere idatzek lotsa ematen dit, bai batakait falloz betia dagola. Baña, kostata ere, atrebitu egin naiz periodikuetara bidaltzera, pentsatzen bait nit ni bezela beste asko ere kasu berdinan izango dirala eta oartarazi nai nieke nere kezka ontaz. Nik beñipein, propa-

gandan letu dituten klastetara juteko asmoz nabil, eta nere ilusiyo au kutsatu nai nieke nere moduko edozeineri. Euskeraren onerakoa izango al da!

FERMIN SAGARDIA DONOSTIA

Kukubiltxok geure kideari:

Aupa Kepita!!! Alias «Pedro Merino Marqués del Fresno»

Kukubiltxon hainbat urtetan zurekin batera ibili garenik, «Bizitz» deritzon antzerki lan honetan dituzun balore handiak aipatu beharrean sentitzen gara:

Zu autore nahiz aktore handia izanik, obra hontako eszena eta akto bakoitzak dituen arlo guztietan daukazun paperak ondo betetzen badakizula erakutsi diguzu behin eta berriz.

Euskal Kulturegintza Herri-tarren aktoreen kasuan, izan duzun langile eta militantearen papera, orain arte protagonistarena izan da zure interpretazioak ez dira inoiz baka-rekoak edo monologoak izan, beti kide eta lagunetz inguraturikoak baizik, zeren eta zuk lagun asko dituzu Kepa, orain inoiz baino lagunago gainera, konprometua, jara edo edozein moztetako eginbeharra egon denean zu beti agertu zarrelako lagunetzko prest. Baina oraingon, bizitzen ari garen

eszena honen aktore honetan, zu eta gure artean kilometroak eta burdinak jarri dizkigute antzeslan hontako mozorrodun pertsonai beltz gaitzo horiek, eta ez dakigu noiz arte.

Baina zurekiko loturak eta zure ideologiarekiko adostasunak kilometroak, ormak, burdinezko atek eta barroteak hausten dituzte: istorio guztietan beti jakiten delako zeintzu diren gure pertsonai onak eta zeintzu gaitzoak, zeintzuk alegitzen dituzten gezi pozoituak batzuen edo beste alde edo aurka. Zu gutariko zara eta zure/gure aurka egiten dutenak ez. Ez dago zalantzarik!

Kukubiltxoren ipuinetan zureak izan diren pertsonaien bidez, Mari Berritua, Tuntu-rrua, Al Arabi, Ganelon, e.a. Euskal Herriko ume askoren bihotzean sarturik zaude, euren imajinarioan, euren ametsetan eta eurek asmatutako ipuinetan, horietatik nahiz guretzat hortxe jarraitzen duzu protagonistak izanik, Kukubiltxoren panpinen barnean, lanetan, eta helburu eta ideologian.

Horregatik, Kepita, egoera guztien gaimetik gurekin eta gure artean zaitugu, eta horregatik ere **askatasun osoa** exijitzen dugu zu bezala dauden **zentzua nekatu gabe, eten gabe, ... bide batez bidean gelditu** direnentzat herriak sor dien errekonozimendua eskaintzen dugu.

«KUKUBILTZO» LARRABETZU

PERTSONAIA



Xabier Arzalluz

Jesuita izana ta sen haundikoa Inaki zaharraren konpainikoa askatasun osoan nahi du Baltikoa hemen autonomia erdipurdikoa hau da hau tipoa PNVn mitoa Azkoitien Jainkoa Bilbon ijitoa Madriden Benegasen akolitua zer tokaioa dudana Azkoitikoa

JEXUX ARZALLUZ

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXEZAHARRRETA INAKI URIARTE

Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Gerentea: INMA GOMILA

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90



HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Araba: San Antonio, 20-1 ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratez Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11